

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ARTZINIEGAKO UDALA

Behin betiko onespena ematea dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzari

Udal honek, 2023ko urtarrilaren 19an egindako ohiko bilkuran, hasierako onespena eman zion dirulaguntzak ematea arautzen duen ordenantzari.

2023ko martxoaren 3ko ALHAOn (26. zenbakia) sartutako iragarkiaren bidez jendaurrean jarri zen eta berriz onetsi zen 2023ko maiatzaren 10eko osoko bilkuran, eta jendaurrean egondako aldiaren erreklamaziorik aurkeztu ez denez, behin betiko onetsi da. Horrenbestez, honela geratu da idatzita:

Artziniegako Udalaren dirulaguntzak arautzen dituen udal ordenantza

I. kapitulua. Xedapen orokorrak. Xedea eta aplikazio eremua

1. artikulua

Ordenantza honen helburu da arautzea Artziniegako udalerrian eta bertako herritarrei dirulaguntzak emateko prozedura, bai eta zenbait xede eta irizpide ezartzea ere herritarrei eta erakundeei berdintasun, gardentasun, norgehiagoka, objektibitate, emakume eta gizonen arteko berdintasun, inklusio eta bereizkeriarik eza printzipioak bermatzeko, udal jarduna osatze aldera.

Jarduerak finantzatzeko laguntzak dirulaguntzak izango dira, eta honako hauek izango dituzte arau: Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, eta Artziniegako Udalaren dirulaguntzen plan estrategikoa.

2. artikulua

Ordenantza honen helburua da Artziniegako Udalak, bere aurrekontu kredituaren kontura, udalaren eskumenpeko eremuan jarduerak egiteko, lehia bidez ematen dituen dirulaguntzak arautzea.

Hona hemen diruz lagundu daitezkeen jardun lerroak:

– Kultura eta kirol arloa. Kulturaren arloan, arteen, zientzien eta letren inguruko edozein kultura jarduera. Halaber, dirulaguntzak jaso ditzakete kultura askotarikotasunarekin zerikusia duten denetarik jarduerak, bai prestakuntzaren arloan (kultura ondarea babestea, zabaltzea, sortzea), bai aisialdiaren arloan. Kirol arloan, dirulaguntzak jaso daitezke kirol ekitaldiak edo jarduerak eta kirolaren sustapenarekin zerikusia dutenak antolatzeak eragiten dituen gastuetarako.

– Gizarte ongizatearen, lankidetzaren eta garapenaren arloa. Udalak dirulaguntzak eman ditzake gizarte esku hartzearen alorrean egiten den lanaz informatzeko eta sentsibilizatzeko jardueretarako, gizarte bazterkeria saihesteko jardueretarako, gizarte zailtasuneko egoerei aurre egiteko baliabide pertsonalak sustatzeko eta, oro har, adinekoei eta laguntza sareak bultzatzen dituzten taldeei laguntzeko.

– Garatzeko bidean dauden herrialdeekiko elkartasunerako proiektuetarako eta herritarrak herrialde horien egoeraz sentsibilizatzeko ekintzetarako dirulaguntzak.

– Euskara arloa. Udalak dirulaguntzak eman ditzake euskara belaunaldi belaunaldi igarotzea bultzatzeko jardueretarako, euskara gizarte bizitzaren eremu guztietan erabiltzea sustatzeko eta euskaraz sortzea, ekoiztea, trebatzea eta itzultzea sustatzeko.

– Feminismoaren arloa. Ahalduz feministak, maskulinitate berriak eta sexu eta genero aniztasuna sustatzea helburu duten jarduerak; genero desberdintasunari buruzko informazioa ematea helburu dutenak, eta indarkeria matxisten prebentzioa eta horietan esku hartzea helburu dutenak.

– Ekologia arloa. Ingurumenaren zaintza, elikadura subiranotasuna, autolaborantza sustatzea eta abar sustatzea eta zabaltzea helburu duten jarduerak.

– Hezkuntza arloa. Guraso elkarteetara prestakuntza emateko eta laguntzeko eta horiek funtzionazteko jarduerak, eta hezkuntzaren sektorerako bestelako jarduerak.

– Museoen arloa. Udalerriko museoen jarduerak mantentzeko eta dinamizatzeko jarduerak.

– Osasun arloa. Osasun arloko prebentzio, babes eta sustapen jarduerak, bai herritar guztientzakoak, bai arrisku berezia duten kolektiboentzakoak, baita osasuna sustatzen duten hezkuntza eta prebentzio helburuak dituzten edo populazio talde desberdinak biltzen dituzten ekimenak ere.

– Bestelakoak. Udal jardueraren osagarri den eta biztanle talde jakin batentzat antolatzen den beste edozein jarduerak.

Honako hauek ez dira diruz lagunduko:

1. Udalak beste laguntza lerro batzuen bidez diruz lagundutako jarduerak bereziak.

2. Herriko zaindariaren jaietako egitarauan diruz laguntzen diren berariazko jarduerak.

3. Otordu gastuak, laguntzaile boluntarioei esker onez emandakoak izan ezik, jarduerak gauzatzeko gastutzat hartzen baitira, eta jardueraren zati direnak edota toki erakundeak berariaz onartutakoak.

4. Elkartearen barne funtzionamendutik eratorritako gastuak, erakundearen ziurtagiri digitalak eta federazio fitxak erosteari edo berritzeari lotutakoak izan ezik.

Egoki iritzi gero eta horretarako finantzaketa izanez gero, funtzionamendu gastuak diruz lagundu ahal izango dira, jardueretarako dirulaguntzetatik aparte lerro baterako deia eginez.

5. Klubari edo elkarteari jarritako zehapenen gastuak.

6. Artziniegako Udalak ordezkariak daukan erakundeei (partzuergoak, mankomunitateak, fundazioak, elkartek, kuadrillak, eta abar) jarduerak modu orokorrean finantzatzeko egiten dizkien ekarpenak, urtero aurrekontuak finantzatzeko egiten dizkien ekarpen ekonomikoez aparteak.

7. Euskara ikasteko barnetegietako otordu eta ostatu gastuak.

Deialdiak honako hauek jaso behar ditu:

a) Oinarri arautzaileak zein xedapenek ezarri dituen eta ALHAOren zein zenbakitan argitaratu diren, salbu eta, oinarriak, bereziak izanik, deialdian bertan jasotzen badira.

b) Zein aurrekontu kredituri egozten zaion dirulaguntza eta zenbatekoa den iragarritako dirulaguntzen gehieneko zenbatekoa, erabilgarri dauden kredituen barruan, edo, bestela, zer zenbateko aurrekusten den dirulaguntzetarako.

c) Dirulaguntza ematearen xedea, baldintzak eta helburua.

d) Dirulaguntza norgehiagoka araubidearen bidez ematen dela dioen adierazpena.

e) Dirulaguntza eskatzeko bete beharreko baldintzak eta horiek egiaztatze bidea.

f) Prozeduraren instrukzioa egiteko eta ebazpena emateko eskumena zein organok duten.

g) Eskerak aurkezteko epea.

h) Ebazteko eta jakinarazteko epea.

i) Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioa.

j) Dirulaguntzak birformulatzeko aukera, bat etorritz Dirulaguntzen Lege Orokorren 27. artikuluan xedatutakoarekin.

k) Ebazpenak administrazio bidearekin amaitzen duen eta, hala ez bada, zein organotan jarri behar den gora jotzeko errekurtsua.

l) Eskaerak balioesteko irizpideak. Irizpide horiek objektibotasuna, berdintasuna eta gardentasuna, publikotasuna, inklusioa eta diskriminaziorik eza bermatu beharko dituzte dirulaguntzak ematean, eta haien haztapenean kontuan hartu beharko da proiektatutako jarduera dirulaguntzaren helburua lortzeko egokia den, honako alderdi hauek kontuan hartuta: egindako jardueraren kalitatea, esperientzia edo ibilbidea, berrikuntza, bideragarritasun baldintzak edo, oro har, dirulaguntzaren xederako egokitzat jotzen den eta deialdian ezartzen den edozein alderdi.

Inola ere ez dira diruz lagunduko sexua dela eta, zuzenean edo zeharka, baztertzailak diren jarduerak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legea betez.

Ez dira diruz lagunduko, halaber, erlijioa, etnia, kultura edo gizarte jatorria edo beste zernahi dela eta zuzenean edo zeharka baztertzat jotzen diren jarduerak.

m) Jakinarazteko edo argitaratzeko bidea, bat etorritz Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. artikuluan xedatutakoarekin.

II. kapitulua. Printzipio orokorrak

3. artikulua

Dirulaguntzak printzipio hauen arabera kudeatuko dira:

– Publizitatea, gardentasuna, norgehiagoka, objektibitatea, emakumeen eta gizonen berdintasuna, inklusioa eta bereizkeriarik eza.

– Ezarritako helburuak betetzeko eraginkortasuna.

– Artzinegako Udalaren baliabideak eraginkortasunez esleitzea eta erabiltzea.

III. kapitulua. Erakunde eta pertsona onuradunen betebeharrak

4. artikulua

1. Pertsona eta erakunde hauek izan daitezke dirulaguntzen onuradun:

A. Irabazteko xederik gabeko elkarteak eta kirol klubak, Euskadiko elkarten ekainaren 22ko 7/2007 Legean edo kasuan kasuko araudian ezarritakoaren arabera behar bezala erregistratuta daudenak eta hauen artean daudenak:

a) Egoitza udalerrian duten kirol elkarteak eta klubak, udalerrian edo udalerriko herritarrentzat jarduerak egiten dituztenak.

b) Egoitza udalerrian izan ez arren, udalerrian edo udalerriko herritarrentzat jarduerak egiten dituzten elkarte eta klubak.

B. Udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak, dirulaguntza ematea eragiten duten jarduerak egiten dituztenak.

2. Honako hauek ez dira onuradun izango:

Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren 13.2 eta 13.3 artikuluetan jasotzen dituen egoeretako batean daudenak.

Deialdian zehaztuko dira dirulaguntza lortzeko beharrezko betekizun bereziak eta horiek egiaztatzeko era.

IV. kapitulua. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia

5. artikulua

1. Eskaerak aurkezteko epea deialdian zehaztutakoa izango da eta ezingo da izan hamabost egun baino gutxiagokoa, deialdiak ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Eskaerak Artziniegako Udalari bidali beharko zaizkio, deialdiaren eranskinean argitaratutako ereduaren arabera eginda, eta Artziniegako udaletxeko administrazio bulegoetan aurkeztu ahal izango dira, baita haren egoitza elektronikoaren bidez ere, edo Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 16. artikuluan xedatutako eran.

Eskaerak ez badituzte betetzen adierazitako baldintza horiek, Artziniegako Udalak erakunde edo pertsona interesdunei hamar egun emango dizkie akatsak zuzendu edo behar diren agiriak aurkezteko. Hala egin ezean, eskaera artxibatatu egingo da, eta interesdunak egindako eskaera bertan behera geratuko da.

2. Betiere, espresuki adierazi beharko da jakinarazpenetarako bizilekua.

3. Dirulaguntzak eskuratzeko eskaerak aurkezteak esan nahi du oinarri hauetan eta kasuan kasuko oinarri espezifikotik ezarritakoa formalki eta berariaz onartzen dela.

V. kapitulua. Deialdia ebatzea

6. artikulua

1. Alkatea edo hark eskuordetzen duen zinegotzia izango da organo instrukziogilearen buru eta dirulaguntza lerroari dagokion Artziniegako Udaleko arloko batzordeko kideek osatuko dute. Horiek beharrezkotzat jotzen dituzten jarduketa guztiak egingo dituzte ofizioz, ebazpen proposamenerako oinarri izango diren datuak zehaztu, ezagutu eta egiaztatzeko.

2. Zerbitzu teknikoak txosten bat egingo du, aurkeztutako eskaerak deialdian ezarritako irizpideen arabera erkatu ondoren, eta bertan, egindako ebaluazioaren emaitza eta eskaeren lehentasun hurrenkera zehaztuko ditu, hala badagokio.

Organo instrukziogileak behin-behineko ebazpen proposamena egingo du, behar bezala arrazoitua, espedientea eta zerbitzu teknikoaren txostena ikusi ondoren.

Entzunaldiaren izapidea egin beharrik ez da izango, baldin eta pertsona edo erakunde interesdunek aurkeztutako egitateak eta alegazioak baino ez badira agertzen prozeduran eta horiek baino ez badira kontuan hartzen; kasu horretan, egindako ebazpen proposamena behin betikoa izango da.

3. Organo eskudunak, instrukzio organoak proposatuta, eman beharreko ebazpena emango du, deialdia ALHAOn argitaratzen denetik aurrera hiru hilabeteko epean gehienez ere.

Gehieneko epea igarota esanbidezko ebazpenik ematen ez bada, esan nahiko du eskaera ezetsi egin dela.

4. Dirulaguntza eskaerari baiezkota eman bazaio, ebazpenean datu hauek agertu beharko dira: dirulaguntzaren zenbatekoa, ordaintzeko modua, laguntzaren xede den programa edo jarduera, aurkeztu beharreko agiriak eta zer baldintzatan ematen den. Gainera, ebazpena onuradunei jakinaraziko zaie, bat etorritik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. artikuluan xedatutakoarekin.

5. Erakunde edo pertsona eskatzaileei dirulaguntza eman ala ukatu zaien jakinaraziko zaie Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 42. artikuluan xedatutakoaren arabera.

6. Ebazpenak amaiera emango dio administrazio bideari eta haren aurka administrazioarekiko auzi errekurtsioa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzien epaitegietan, bat etorritik Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legeak 8. artikuluan xedatutakoarekin, ebazpena jakinarazi eta bi hilabeteko epean.

Zuzenean aurkatu ezean, berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, bat etorritz Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin.

VI. kapitulua. Dirulaguntzaren zenbatekoa edo zenbateko hori zehazteko irizpideak

7. artikulua

1. Deialdiek dirulaguntzaren banakako zenbatekoa jasoko dute, dirulaguntzaren xedea kontuan izanda.

2. Ez badago modurik kopuruak zehazteko, deialdiak ezarriko du zein irizpide objektiboren arabera zehaztu, eta, hala badagokio, irizpideak nola haztatu ere ezarriko du dirulaguntzaren xedea kontuan izanda. Besteak beste, kontuan hartu beharko da aurrekonturik dagoen.

3. Eskaren zenbatekoaren bolumena dirulaguntzarako gorde den gehienezko zenbatekoa baino nabarmen handiagoa bada, deialdiak onuradunen artean hainbanatzeko aukera emango du, salbuespenez eta ezarritako betekizunetan gorabeherarik eragiten ez bada, erakunde edo pertsona onuradunek eskatutakoaren eta dirulaguntzarako gehienezko kopuruaren arteko aldearen ehunekoan.

VII. kapitulua. Diruz lagun daitezkeen gastuak eta bateragarritasuna

8. artikulua

1. Oinarri hauek araututako dirulaguntzak egindako gastuetarako izango dira, baldin eta dirulaguntzaren xede den jarduera garatzeko egin badira. Deialdi bakoitzean diruz lagundu daitezkeen kontzeptuak ezarriko dira.

Diruz lagun daitezkeen gastutzat hartuko da argi eta garbi diruz lagundutako jardueraren izaerari erantzuten diona, guztiz beharrezkoa dena eta dirulaguntzen oinarri arautzaileetan ezarritako epean egiten dena.

2. Zeharkako zergak berreskuratu edo konpentsatu ahal badira, ez dira dirulaguntza jaso dezaketen gastutzat joko, eta errentaren gaineko zerga pertsonalak ere ez.

3. Dirulaguntzaren zenbatekoa ezin izango da, inola ere, onuradunaren jardueraren kostua baino handiagoa izan, estatuko nahiz nazioarteko beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuek emandako laguntzekin edo bestelako diru sarrerekin batera.

VIII. kapitulua. Ordainketak

9. artikulua

Erakunde edo pertsona onuradunak dirulaguntzaren araudian xedatutakoetarako emandako dirulaguntzarekin egin beharreko jarduera gauzatu dela justifikatu ondoren ordainduko da dirulaguntza.

Ordainketa aurreratuak eta konturako ordainketak egin ahal izango dira, dirulaguntza arautzen duten oinarrietan hala zehazten bada. Horietan, aurrerakinaren ehuneko ezarriko da, eta laguntzaren ehuneko laurogei izan ahalko da gehienez ere.

Deialdiaren ebazpen egunetik aurrera ordainduko da dirulaguntza emateko ebazpenean adierazten den aurrerakina.

Laguntzaren gainerakoa, aurrerakina kenduta, ordainketa bakarrean ordainduko da, deialdi bakoitzean zehaztutako epean egindako gastuak (behar bezala zerrendatuta) justifikatu ondoren.

Deialdi bakoitzean adierazitako epean aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzeko gastuak ordaindu direla egiaztatzen duten agiriak.

Dirulaguntza justifikatzeko aurkeztutako gastuak ordaindu izana frogatzen ez bada, justifikatu beharreko aurrerakin gisa ordainduko da dirulaguntza.

IX. kapitulua. Dirulaguntza aldatzea

10. artikulua

Onartutako dirulaguntza berriro aztertuko da, gastua finantzatzeko beste erakunde batzuek egindako ekarpen osagarriak edo beste diru sarrera batzuk ere erabili direla jakin ondoren. Horrelakoetan, diruz lagundutako gastuen eta diru sarreren arteko likidazioa egin eta hortik ateratzen den emaitza defizitariora izango da dirulaguntzaren behin betiko gehieneko zenbatekoa.

Dirulaguntza emateko kontuan hartu diren baldintzetan aldaketaren bat gertatzeak eta edozein erakunde publiko edo pribaturen xede bererako dirulaguntzak edo laguntzak esku-ratzeak dirulaguntza emateko ebazpena aldatzea ekarriko du, baita dirulaguntzaren zati bat itzuli behar izatea ere. Dirulaguntza onartu eta gero, hura emateko arrazoi izan ziren egitatezko inguruabarrak aldatzen badira, Artziniegako Udalak, onuradunaren proposamen arrazoitua aztertuta, aldatu egin dezake dirulaguntza, alkatearen dekretu bidez, organo instrukziogileak hala ebatzi ondoren.

X. kapitulua. Justifikazioa

11. artikulua

1. Dirulaguntzen onuradun diren erakundeek, deialdia egin zeneko urtearen hurrengo urtarri-laren 31 baino lehen (deialdian beste epe bat ezartzen ez bada), instrukzio organoaren aurrean justifikatu beharko dute dirulaguntza emateko ekitaldian aurreikusi ziren helburuak lortu eta ezarritako baldintzak bete dituztela.

2. Oro har, onuradunak justifikazioa kontua aurkeztu beharko du gastuak justifikatzeko, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legearen araudiaren 72. artikuluan aipatzen diren gastuen frogagiriak ere aurkeztu beharko ditu.

a) Diruz lagundutako jarduera edo jarduerak egiteak eragindako gastuen justifikazioa, behar bezala zerrendatuta, dirulaguntza kalkulatzeko oinarritzat hartutako gastu aurrekontuaren zenbateko osoari dagokiona. Horretarako, dagozkion fakturak aurkeztu beharko dira, bai eta merkataritzako trafiko juridikoan frogatutako balio balioidea edo administrazio eraginkortasuna duten gainerako agiriak ere. Dokumentuak jatorrizkoak izan beharko dira, edo, deialdiaren oinarri arauetan hala ezartzen bada, kopia konpultsatuak.

Gastuak justifikatzeko ez da onartuko honako datu hauek argi eta garbi azaltzen ez dituen fakturarik ez ordainagiririk:

- Jaulkitzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Hartzailea: izena edo sozietatearen izena eta NANA edo IFZ.
- Gastuaren xedea.
- Eguna.
- Fakturaren zenbakia.

Ez dira justifikazio gastu gisa onartuko PFEZaren (persona fisikoen errentaren gaineko zerga) konturako atxikipenei dagokien zerga araudia betetzen ez duten faktura edo ordainagiriak.

Fakturak ordaindu direla frogatzeko, agiri hauek onartuko dira:

– Bankuko jatorrizko ziurtagiria; bertan agertu behar dira, gutxienez, zenbatekoa, data eta ordainketaren edo transferentziaren erakunde onuraduna. Ziurtagiri hori izenpetuta aurkeztu behar da, edota bankuaren zigilua izan behar du.

– Jatorrizko fakturaren jaulkitzaileak sinatutako edota zigilatutako ziurtagiria; bertan agertu behar dira faktura zenbakia, zenbatekoa eta ordainketa data.

– Posta arruntez jasotako banku laburpenak, jatorrizkoak.

- Kontu korronteen libreten kopia konpultsatua, mugimenduak ageri dituenak.
- Posta elektronikoz jasotako banku laburpenak edo transferentzia agindu telematikoak, ordainketa edo transferentzia egin duen bankuaren zigiluarekin.
- Jatorrizko erosketa tiketak, zenbatekoa ordaindu dela adierazten dutenak (merkataritza zentroetakoak, autobideetakoak, bidaiak txartelak, etab.), edo jatorrizko fakturak, faktura ematen duen enpresaren zigilua dutenak eta faktura ordaindu dela adierazten dutenak.

Urriaren 29ko 7/2012 Legeak 7. artikuluan ezartzen duenari jarraikiz, ez da onartuko eskudirutan 2.500,00 eurotik gora ordaintzea (edo horren kontrabalioa atzerriko monetetan).

Aurreko paragrafoan adierazitako zenbatekoa kalkulatzeko, hau da, 2.500,00 euro edo horren kontrabalioa, ondasun ematea edo zerbitzu ematea zenbat eragiketa edo ordainketetan zatitu den, horien guztien zenbatekoak batuko dira.

Dirulaguntza kalkulatzeko oinarri hartu den gastuen aurrekontu osoa justifikatzen ez bada, dirulaguntza murriztu egingo da egindako gastu txikiagoaren proportzioan.

b) Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren diru sarrera eta gastuen balantzea.

c) Diruz lagundutako jardueraren edo jardueren memoria.

3. Diruz lagundu daitekeen jardueraren xedea unitate fisikoen edo beste parametro batzuen arabera neur daitezkeen jarduerak egiaztatzea bada, moduluka justifikatu ahal izango dira gastuak, salbuespenez, dirulaguntza emateko arrazoiak modu frogagarrian egiaztatuta, eta, hala badagokio, dirulaguntza emandako xederako erabili dela egiaztatuta.

Jarduera memoria eta memoria ekonomikoa aurkeztu beharko dira dirulaguntza justifikatzeko. Azaroaren 17ko 38/2003 Legearen Araudiaren 78.2 artikuluan xedatutakoak jaso beharko ditu memoria ekonomikoak.

4. Bat etorritik Dirulaguntzak justifikatzean baliabide elektronikoen, informatikoen eta telematikoen erabilera arautzen duen uztailaren 17ko EHA/2261/2007 Aginduan xedatutakoarekin, dirulaguntzak justifikatzeko erabili ahal izango dira faktura elektronikokoak.

5. Adierazitako epea igaro eta lehen aipatutako agiriak aurkeztu ez badira, ordainketa kredituak balio gabetu egingo dira, eta hasiera emango zaio "konturako ordainketa" gisa jasotako dirua itzultzeko espedienteari.

XI. kapitulua. Dirulaguntzen aldiberekotasuna eta bateragarritasuna

12. artikulua

Beste administrazio batzuek zein estatuko edo nazioarteko beste erakunde publiko edo pribatu batzuek emandako beste dirulaguntza batzuk jasotzea onartu ahal izango du deialdiak, baldin eta dirulaguntzaren zenbatekoa, bera bakarrik edo beste dirulaguntza batzuekin batera, ez bada diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa edo diruz lagundutako jarduera gauzatzeko eskatutako finantziarioa murriztea badakar.

XII. kapitulua. Jardueraren berri emateko kartelak eta materiala

13. artikulua

Dirulaguntzen erakunde onuradunek konpromisoa hartzen dute diruz lagundutako programa edo jarduera dela eta argitaratzen dituzten programa, iragarki kartel, argazki eta gainerako material grafiko, idatzi edo soinudunetan Artziniegako Udalaren babes berariaz eta argi eta garbi adierazteko. Horrez gainera, horietan guztietan Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialak erabili beharko dituzte, eta euskara izan beharko da nagusi, eta, gainera, Artziniegan euskara erabiltzeari buruzko ordenantzan ezarritakoa ere bete beharko dute.

Hizkuntzaren erabilera ez-sexista bermatu behar da agiri guztietan, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 18ko 4/2005 Legea betetzeko. Lege hori betetzeko, gainera, argitaratzen diren irudietan ezin dira pertsonak erakutsi, sexu batekoak edo bestekoak izateagatik, giza duintasun gutxiago edo gehiago dutela edo sexu objektu soil gisa; estereotipo sexistak saihestu behar dira, eta sexu, rol eta genero identitateen aniztasuna bultzatu behar da.

XIII. kapitulua. Dirulaguntza itzultzea

14. artikulua

Jasotako dirulaguntzak itzuli egin beharko dira honako hauek xedatzen dituzten egoeretan: Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorra eta Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren arautegia onesten duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua.

XIV. kapitulua. Egiaztatzea

15. artikulua

Artziniegako Udalak, dirulaguntza izapidetzen duen unitatearen ekimenez, deialdi hau garatzeko egokitzat jotzen diren ebazpenak emango ditu, eta onuradunek emandako datuen egiazkotasuna eta oinarri hauetan araututakoa betetzen dela egiaztatzeko eta exijitzeko jarduketak gauzatu ahal izango ditu. Horretarako, onuradunek konpromisoa hartzen dute Artziniegako Udalak egindako jardueri buruz eskatzen dizkien datu eta agiriak emateko.

XV. kapitulua. Erantzukizunak

16. artikulua

Erakunde onuradunek beren gain hartzen dituzte programa edota jarduera egitearen ondoriozko erantzukizunak, baita hura garatzeko indarrean dagoen legediak eskatzen dituen baimenak eskatzeko ardura ere.

XVI. kapitulua. Interpretazioa

17. artikulua

Oinarri hauek interpretatzean zalantzarik sortzen bada, Artziniegako Udalaren Kulturako Zerbitzu Teknikoak ebatziko du.

XVII. kapitulua. Errekurtsoak

18. artikulua

Oinarri hauen zein haien ondorioz sortutako administrazio egintza ororen aurka egin daiteke, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak ezarritako kasuetan eta eran.

XVIII. kapitulua. Araudi aplikagarria

19. artikulua

Oinarri hauetan xedatu ez denerako, honako hauek hartuko dira kontuan: azaroaren 17ko 38/2003 Legea, dirulaguntzena; uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretua, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Legearen arautegia onesten duena; urriaren 1eko 39/2015 Legea, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena, eta aplikatzekoak diren gainerako arauak.

XIX. kapitulua. Indarrean jartzea

20. artikulua

Ordenantza hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Artziniega, 2023ko maiatzaren 25a

Alkatea

JOSEBA VIVANCO RETES